


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira 2025eko urrian

2024ko urriaren aldean, eraikuntzaren kostuak % 3,6 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 jaitsi da 2025eko urrian, aurreko hilaren aldean. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 3,6 igo dira.

Sektoreen arabera, eta hilabete arteko terminoetan, ingeniari-tza zibileko kostuak % 0,1 jaitsi dira, eta eraikuntzakoek berd in jarraitu dute. 2024ko urriaren aldean, kostuak % 3,5 igo dira eraikuntzan eta % 3,6 ingeniari-tza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Lehengaien kostuak % 0,1 jaitsi dira aurreko hilaren aldean, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko terminoetan, lehen-gaien kostua % 4,2 igo da eta eskulanaren kostua % 1,7.

Lehengaien kostuak eraikuntzan eta ingeniari-tza zibilean % 0,1 jaitsi dira 2025eko urrian, 2025eko irailaren aldean. Urte arteko bilakaeran, ordea, lehen-gaien kostuak % 4,2 igo dira eraikuntzan eta % 4,3 ingeniari-tza zibilean.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	122,3	-0,1	3,6
Eraikinak	122,1	-0,0	3,5
Ingenieria zibil	123,2	-0,1	3,6
Lehengaiak	123,7	-0,1	4,2
Eraikinak	123,5	-0,1	4,2
Ingenieria zibil	124,8	-0,1	4,3
Laneskua	118,3	0,0	1,7

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat, Eraikuntzaren Kostuen Indizea

2025eko urrian, eraikuntza-sektoreak kontsumitutako lehengaien kostuak gora egin du oro har. Aurreko urteko hilabete beraren aldean, igoerarik handienak *Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioan* izan dira (% 7,6ko igoera), eta, ondoren, *Erauzketa-industrietan* eta *Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioan* (% 4,3ko eta % 3,8ko urte arteko igoera, hurrenez hurren). *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* arloan, berriz, % 2,9ko jaitsiera izan da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Urria 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	4,3
Kokeak eta petrolioaren flintzen	-2,9
Metallikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	3,8
Produktu metalikoaren fabrikazioa, makineria eta ekipaok salbu	3,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	7,6

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Azaroaren 25a

Iturria: Eustat, Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62